

ERBESTEKO AMETSAK

I'ko BAKARTIYA

Gabero amets txarrak, esna oberik ez
ni beti ametsean egunez ta gabez.
Erbesteko egunak, atzerriko gabak:
biyotzak bai minbera, ta ameskor burubak!

Gauza txikiyak, baña neretzat laztanak,
gogoratzen zaizkit, an utzi nitubanak;
nire liburu ayek emen ba' nituke
bart baño lasayago lo egingo nuke!

Sarri naiz ametsetan nire etxian sartu
ta an utzi nitubanak ekartzeko artu:
orduban esnatzen naiz atzerri lurrian:
gelako horma bakarrik begiyen aurrian.

Askotan itz egin ai zidaten gizonak
ta gaur ezin ikusi ditudan lagunak
non diran ere ez'takit, bizi diran ere ez:
ametsetan ikusi, ta gero negarrez.

Sei urtian laguna ta ikaskide izana,
orain urte ta erdi gudan il zutena,
askotan ikusten det eta nik galdetu
nola arrayo nezaken il bat besarkatu.

Parrez erantzuten dit e'tzala egiya
il zutela ta eman zidaten berriya.
Zortzi urte oetan olaxe amona
ere ikusten det sarri, noizik bein aitona.

Esna berriz goguan languank berritzen;
lkasteko ordubetan pelotan jokatze.
Mendira agure zar bat ikustera juan
ginan eguna ere beti det goguan.

Arek esan zizkigun, baina bai ederki!,
edonorn jakindako amaika edeski;
Donosti, Tolosa ta Elgoibar'ko jayak
eta gure auzoko sagardotegiyak.

Pello Errota aundiyak ta Xenpelar zanak
botatako bertsuak, ta Udarregi'renak;
beste asko ere bai, aztu zaizkit neri:
gaur pozik aterako nizkiyoke ari.

Gurekin aitona, ta billoba aurrarekin;
Siaskan zegonari abeski zarrekin

Lo artu-erazi nai, bertsuak entzuten
Negarrez ta karraxiz ez'pai'tzigun uzten.

Neska e'tzan polita, bai itxusi samarra,
Baña arek kantatzeko bai abots ederra!
Damu det gaur benetan an ez ikasiya
Arek kantatzen zuban siaska-abeskiya.

Euzko Deya. La Voix des Basques egunkarian, 125.zenbakian, 1938ko irailaren 11an argitaratuta. Ez dakigu idazlearen benetako izena.